



GIZARTE ZERBITZUEN ZORROAREN JARRAIPENERAKO BATZORDEA

GALDETEGIKO EKARPENEN INTERPRETAZIOA – JASOTAKO ZENBAIT IDEIA- ONDORIO

Dokumentu honetan, Elkargoak EAEko Zerbitzuen eta Prestazioen Zorroko edukiak zabaltzeko helburuarekin bidali zuen galdetegiaren erantzunak jaso ondoren, elkargokideek egindako galdera-sorten azterketatik ateratako ideia nagusiak biltzen ditu; batetik, gizarte-zerbitzuen arloko errealitate profesionala ezagutzeko eta bestetik programa desberdinen Zorroan ezarritako zerbitzuekin identifikatzeko.

→ Gizarte Hezkuntzako profesionalak Zorroko Zerbitzuen garapenean duten presentziari buruz

- Gizarte hezkuntzako profesional gehienek haurtzaroan, nerabezaroan eta familian egiten dute lan.
 - Haurtzaroko eta nerabeentzako beste hartzaille batzuentzako baino zerbitzu gehiago daude?
 - Garatuago daude? Apustu profesional handiagoarekin?
 - Esparru tradizionala delako izan daiteke?
- Profesional askok gizarteratzearen arloan egiten dute lan
 - Inklusioaren esparruan zerbitzu gehiago dagoela ondoriozta daiteke?
 - Identifikatzen da 1.3 zerbitzutik kanpo, toki-eremu kanpoan?
 - Gizarte-hezitzaile gehiago dago arlo horretan?
- Oso profesional gutxi egiten dute lan adineko pertsonekin
 - Hartzaille horiekin zerbitzuak garatuz gero, gizarte hezkuntzako oso profesional gutxi dago?, ez dira kontratatzen?
 - Zerbitzuak beste profesional batzuekin betetzen dira (klinikako laguntzaileak, integratzaileak, dinamizatzaileak ...)
- Ez da ikusten gizarte hezkuntzako profesionalen presentzia nabarmena indarkeria matxistarekin lotutako zerbitzuetan
 - Indarkeria matxistari lotutako zerbitzuetan bada beste profil profesionalik garatzen duenik?
 - Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzeko nahiko zerbitzuz garatu dira?

→ Profesionalak zorro-zerbitzuetan ezagutza eta kokatzeari buruz

- Oro har, galdetegia erantzun duten elkargoko kideak ondo kokatuta daudela eta beren lan profesionalaren eta zorroan dagokion zerbitzuaren ezagutza dutela esan daiteke.

→ Lurralde historikoetan zerbitzuen garapenari buruz

- Galdetegi gehienak Bizkaiko kolegiatuetatik etorri dira, nahiz eta horrek ezin digun esan zerbitzu gehiago garatuak daudenik
- Kontuan hartuta zenbat kide dauden lurraldeka, proportzian, Gipuzkoan gehiago dira kolegiatutako pertsonen galdetegiak
- Ezin dugu ondorioztatu lurralde batean edo bestean Zorroko Zerbitzuak gehiago edo gutxiago garatu direnik.
- Bai, ondoriozta dezakegu Gipuzkoan, batez ere, eta Araban ere, oso txikia dela kolegiatu kopurua, gizarte-hezitzaileen tituludun kopurua alderatuta, eta ikusita ere nahiko handia dela lanbidea garatzen ari den kopurua.
- Gipuzkoako elkargokide-kopuruari buruz, zer gogoeta egin dezakegu zerbitzuen garapenarekin, beste profesionalen bidez zerbitzuak garatzearekin lotuta?

→ Zerbitzu-sistemen eta profesionalen buruz

- Galdetegiari erantzun dioten kide gehienak Gizarte Zerbitzuetan ari dira lanean.
- Elkargoko kide askok sustapenaren eta gazteriarren arloko ekipamendu eta zerbitzuen arloan lanean daudela adierazi dute
- Gazte Justizian profesional gutxi daude (ez da eremu horretan lan egiten duten pertsonen kopuruaren isla, izan daiteke ez dutelako egin edo ez direlako gizarte-hezkuntzarekin lotuta sentitzen, eta are gutxiago Elkargoarekin).
- Berdintasuna, Euskara eta Immigrazioa sailei lotutako pertsonen kopurua anekdotikoa da; hortik ondoriozta daiteke ez dagoela pertsona titulu gehiegi arlo horietan lanean